

# Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2013ko úrtarrila • 275. alea



**HERRIAREN MEMORIA  
ARGAZKITAN**

# Sagardotegira irteera Pil-Pileanekin

Martxuan 9xan, zapatua  
(bazkarixa)

Izena emateko epia: Martxuan la  
Lekua: Arranua, Gaztelupe edo Pil-pilean  
943 75 13 04 - euskara@pilpilean.com

Zoragarri pasauko dogu!



# iratxo



*gozodenda*

**Eguneroko prentsa eta  
aldizkari aukera zabala**



# Eman euskara elkarri!



Oskar Elizburu Iñaki Amuategi

Epa, Txisto.

Zer, Korrika bajatok eta ondiokan be txorkatillak gogortuta? Martxuaren 20xan, udaberrixakin batera edo, helduko dok Korrika 18 Plaentxiara.

Orainguan, "eman euskara elkarri" dok ipiñitako lelua. Ez jaok gaizki eskaeria! Horrek ekarriko leukek euskaraz bizitzeko aukeria. Eta emoteko hainbat bide ikusten juat:

- Daukanak ez daukanari... Euskaldunok bajaukagu ardura haundi bat: Transmisiñua ziurtatzia. Ezinbestekua dok ondokuei euskeria eta euskeriarenako maitasuna transmititzia. **Euskalakari** izateko konpromisua berrartu biharra jaok, hortaz.

## “Euskaldunok bajaukagu ardura haundi bat: Transmisiñua ziurtatzia”

- Ez daukanak daukanari... Euskaldun ez direnek *euskalakari* lehen pausua emon biharra jaukek, ikastia. Pauso txiki bat emotiak izugarriko atia zabaltzen jok, ulertzia hain zuzen! Ulertzen dabenak euskaldunari argi esango balotsa lasai egin leikela, a zer nolako atsedena! Elkarbizitzarako pauso galanta!
- Administraziñuak denoi... Hauen egitekua baliabidiak ipintzia dok; euskara ikasteko, erabiltzeko, sustatzeko... Baiña baliabidiak ez dittuk ekonomikuak bakarrik; bekak emotiak asko laguntzen bajok, gehixago lagunduko leukek euskera jakitiak eta lanian erabiltziak prestigioa eta abantailak eukitziak, balioterantsia eukitziak.
- Eragilliek herrixari... Gizarte eragilliek, alderdi eta erakundiek, euskeria erdigunera ekarri bihar juek. Gatazka konpontzeko norabide egokixa hizkuntz gatazka konpontzetik etorriko dala argi euki behar leukiek eta hori bultzatu.

Bi berba modu ei jaok, Txisto, ornitologuena eta txorixena. Lehenenguen eskeman saiatu nok ni; egingo al dok hik txorixarena eta adibidiekin kontatu?

Txio-txio Oskar!

Eman euskara elkarri! Zelan egin geinkek ostera, Korrikako mezuetatik harutzago juateko?

Ornitologuan puntueri, txioka erantzuta tokatzen dok:

- Daukanak ez daukanari... Transmisiñuaren haritik, gure ingurukueri eta ez bakarrik ondorengueri, transmititzen detsegun hizkuntz-eredua zaindu. Euskaraz egittia bertako produktuak kontsumitzia modukua dala erakutsi bihar juagu: geuria, ekologikua, konfiantzazkua... eta ederra!
- Ez daukanak daukanari... Alkar ulertu eta errespetatetik hasitta, danok egin geinkek zeozer. Ez dakixanari ikasteko bidiak erraztu geinixoz, baiña beren aldetik be, konpromisukhartu biharro juek ulertzen hasi eta euskalduntze bidian aurrerapausuak emoteko.

## “Ez daukanak daukanari... Alkar ulertu eta errespetatetik hasitta, danok egin geinkek zeozer”

- Administraziñuak... Instituziñuetan euskaraz lan egin eta berakin harremanetan jartzen diran enpresa eta hornitzaillieri zerbitzua euskaraz emoteko exijiduko detse. Kutxabanken kontrataziñuetan esate baterako, bihargin erdaldunak jende aurrian jarritz eman barri daben atzerapausuan aurrian, erabaxiori atzera botatzeko neurrixak hartzia bajaok. Horrekin batera, euskaraz etiketatzen eta lan egitten daben enpresak, zigortu biharrian, saritzen hasitta, ez litzake bape politika txarra.
- Eragilliek herrixari... Euskararen normalizaziñorako diseñu teknika egittia eta plan hori martxan jartzeko biharrezkua dan burujabetza politikua izateko oinarrixak gaurdanik adostu eta aurrera ateratzeko konpromisua hartzia.

Pio-pio, twet-twet, pi-pi-pi, piu-piu, txio-txio... txorixen berbetian be, aukeratu egin bihar Oskar!

Nork daki,  
nork esan lezake,  
kaiolan den txoria  
nola ari den kantari pozez?

(Xabier Soubelet)

## Gutunak

### Soraluzeko Misio Taldea **Eskerrak ematen**

Hamar urte bete dira, Soraluzeko Misio Taldeak, Donostiako Elizbarrutiko Misioen babespean, apaltasunez diasporan (munduan zehar) aurkitzen diren misiolari plaentxiarrei laguntzeko bidea hasi zuela. Laguntza hau proiektu ekonomikoak babestu eta harreman pertsonalak zaintzean datza. Ondorengo lerroak Soraluzeko herri osoari gure eskerrik beroenak helarazteko erabili nahi ditugu. Gure taldeak, ekintzaz ekintza eta urtetik urtera, gurekin parte hartu duzuenoi esker egin du aurrera. Horregatik, norbanako zein herriko eragile guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu, bereziki, parrokiako katekesiko umeei. Beren laguntza ekonomikoa eskaini digute behin baino gehiagotan eta ondo dakigu gure haurrei aurrezteko zenbat kostatzen zaien! Gure proiektuak, txikiak eta mugatuak izan arren, herrian solidaritatezko bide bat ireki dutela uste dugu eta horrek aurrerantzean ere zuekin batera ekintza ezberdinak antolatzea garamatza. Horregatik, guztioi, eskerrik beroenak bihotz-bihotzez! Bizitzaren bidean elkar topatzen jarraituko dugu; denon artean bakea, giza justizia eta egia gailenduko diren mundua lortuko dugunaren desioa eta itxaropena elkarbanatuz.

### Soraluzeko EAJ **Inposizioez hitz egin dezagun**

2012ko abenduaren 18an Soraluzeko Udaletxeko balkoian BILDUK Espainiako bandera ipini zuen. Hau horrela izan da, 39/1981 Lege espainiarrak behartuta. BILDUK "inposizio" hau salatu zuen eta herritarrak deitu zituen Plaza Berrian egin zen konzentrazioa, baita, herriko lehio eta balkoietan ikurriña ipintzera ere.

2012ko azaroaren 5ean, alkatetza dekretu bidez, pertsona bat kontratatu zen laguntza tekniko lanak burutzeko udaletxean. Guzti hau, 7/1985ko lege espainiarra oinarritzat hartuta. Alkateak, "Inposizio" hau udaletxeko plenoaren gehiengoaren aurka egin zuen, hau da, herritarren gehiengoaren aurka.

Lege espainiarrak BILDUren interesen aurkakoak direnean, banderaren kasuan adibidez, hauen "inposizioa" salatzen dute. Aldiz, aldekoak direnean, dekretuaren kasuan bezala, lege espainiarretaz baliatzen dira beraien "inposizioa" aurrera eramateko. Argitzea nahi dugu, gure taldeak, "inposizio" guztiak salatzen dituela, bai banderarena baita dekretuarena ere. Beste batzuk aldiz, ikusi den bezala, interesatzen zaizkienak bakarrik. Informazio gehiago [www.soraluzepnv.com](http://www.soraluzepnv.com)

### Soraluzeko Herrira **Elkartasunak ez dauka etenik**

Euskal Herriak jasaten duen gatazka politikoari aterabidea eman nahian eta garai berrietan murgilduta, preso eta iheslariak etxeratzeko erronka duen Herrira mugimendua sortu genuen. Gure eginkizuna errepresaliatuak etxeratzea izango da eta eginkizun horrek batzen gaitu Soraluzeko Herrira osatzen dugunok, eta ez egitasmo politiko jakin batek, ezta ideologi bakar batek ere. Herrira mugimendua anitza da eta Soraluzen ere helburu hori dugu, preso eta iheslariak etxeratzeko helburuarekin bat egiten dugun herritarren mugimendu zabala eraikitzea.

Aurrez gure besarkadarik beroena urte luze, gogor hauetan barixakuro euskal errepresaliatuak etxeratzearen aldarrikapenarekin bat eginez enkarteladetan parte hartu duzuen nagusi, heldu, gazte zein umeei. Eguzki, bero, euri, elur, hotz, debeku, probokazio eta poliziaren jipoiak jasanda ere tinko mantendu zareten guztioi.

Gure asmoa dinamika berri bati hasiera ematea da euskal preso eta iheslariak herriratzeko helburuarekin bat egiten duen guztiak batzeko. Elkartasunaren argiak piztuta segiko du.

Urtarrilaren 25ean, 20:00etan, hasiera emango diogu Plaza Zaharrean hileko azken barixakua ekimenari.

## Bittartetik



## Betaurrekoak behar ditugu batzuetan

**I**ruñean gertatu zen. Gabonen bueltan, nahiz eta komunikabideetan urte hasieran agertu: banketxe baten kanpoko aldean eskale batek kartera bat aurkitu zuen, barruan dirua zeraman kartera aurkitu ere (200 euro). Ba kartera poltsikoan ondo gorde eta dirua bere beharretarako erabili beharrean, banketxe-ko arduradunari eman zion, hark jabeari buelta ziezaion.

Jabea: Txaro, pentsioduna. Zeresanik ez eskalearekiko Txaroren eskerrona eta harridura handiak izan zirela. Eskalea, berriz, eskale da, jakina, behar handia duelako, bestela inori ez zaio eskean ibiltzea gustatzen, eta are guxtiago, kalean, denon begibistan.

Ba, eskale hura lan eta diru barik dago. Eta kartera aurkitu eta bueltatu zuenean, etxea galtzeko zorian ere bazegoen, alokairua ordaintzeko beste ez zuelako. Izena: Gheorghe, ez Jorge. Gheorghe Lactu. Eta bai, kanpotarra da. Serbiarra, xehe-tasun gehiagorako.

Albistearen berri izandakoan nire buruari galdera egin nion: Gheorgheren egoeran, gauza bera egingo nuke nik? Ba gaur da eguna oraindik erantzuna ez dudala garbi ikusten. Batik bat irrealia iruditzen zaidalako ohituta gauden bizimoduarekin horretaraino iristeko arriskua somatzea. Baina aizue, gero eta gertuago ikusten hasita gara halakoak, beraz... zuk zer egingo zenuke?

Eta beste galdera pare bat: horrenbeste korrupzio, lotsagabekeria, diru-lapurreta "legalak"... egunerokoan eta gurean bizi-bizi ditugun honetan, pentsatzen jarraitzen duzu: 1- etorkinen erruz xahutzen direla gure gizartearen diru-baliabideak? 2- Etorkin guztiak direla "aprobetxategi" hutsak?

# “Nabarmen egin dute gora emakumeen aurkako indarkeria kasuek”

Gotzon Odriozola



Gotzon Odriozola bulegoan.

Irailean izendatu zuten Gotzon Odriozola (Soraluze, 1963) udaltzainburu. Kaleko arazoak espedienteetan jasotzea du orain egiteko nagusia. Lau udaltzainen ardura du eta zeregin administratiboen koordinazio-lana egiteaz arduratzen da. Erregetxeko txandakako 18 aparkalekuen kudeaketa zehazten eman ditu azken asteak, izan ere, makinari ezean, herriko udaltzainak arduratuko dira aparkalekuon zaintzaz.

## Zein funtzionamendu izango du Erregetxeko sistema berriak?

Astegunetan 9:00etatik 21:00ra eta zapatuetan 9:30etatik eguerdiko 13:30era egongo da martxan. Udaltzainek, kotxeen matrikulak taula batean apuntatuko dituzte. Ordu eta erdiko denbora muga gainditzen duenak isuna jasoko du (40 eurokoa).

## “TAO sistemak erosketak eta bestelako zereginak egitea erraztuko du”

### Zein da sistema hau ezartzearen helburua?

Sistema honek herriaren erdialdera autoarekin etorri behar dutenei, erosketak eta

bestelako zereginak egiteko erraztasuna emango die. Eibarren edota Bergaran primerako erantzuna izan du TAO sistemak.

## “Txakurren kontuarekin gogorrago jardungo dugu”

### Txakurren kontuak kezka sortu du herritar askorengan.

Orainarte abisuak bakarrik eman ditugu baina hemendik aurrera gogorrago jardungo dugu. Udaltzaingotik espedienteak zabaltzen hasi gara eta gero udalaren esku dago espediente horiek isun bihurtzea. Dagoeneko badago txakurrak solte eramateagatik bi espediente zabalik dituenik, eta kaka ez jasotzeagatik ere lehen espedientea tramitatu dugu.

### Petardoak gaiak ere eman du zeresana...

Badakigu kalean asko komentatu dela. Gurera ez da kezarik iritsi. Zaila da petardoak nor botatzen dituen antzematea. Aurrekoan, bizilagun batek hala eskatuta, errekonduan dagoen gazte lokal batera joan ginen azalpen eske, eta ordutik beretu egin da kontua.

### Genero indarkeriari dagokionez zelaioa da bilakaera?

Azken urteotan nabarmen egin dute gora emakumeen aurkako indarkeria kasuek, jende gaztearen artean batez ere. Egun, 30-35 urte bitarteko lau gizonzkoen urrutze aginduak ditugu zaintzapean; hiru dira genero indarkeria delituak salatzeagatik ezarritakoak. Erasoak jasan dituzten emakumei jarraipen estua egiten diegu eta behar dutenean berehalako asistentzia eskaini ere bai. Gauetan Ertzaintza arduratzen da.

### Krisia dela eta lapurretek ere gora egin omen dute.

Orain, gauza baliotsuak baino, eguneroko bizitzan beharrezkoak diren elementuak lapurtzen direla bai, baina kopurua ohiko mailan mantendu dela esango nuke. Esaterako, denbora asko ez dela Mendiola industrialdean aparkatutako kamioiei gasolioa harrapatu diete. Gainontzean, herrian ez dugu kezkatzerik motibo berezirik.



**Hnos. BENITO ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

## Misio Taldeak 3.252 euro batu ditu Haitiri laguntzeko



Misio taldeko kideak, Gaztañerretako postuan.

Urik gabe ez dago bizitzerik lemapean, Haitiko Lavenneau - Jacmel herrialdean 2008ko uholdeek sortutako ezbeharrak konpontzen laguntzeko 3.252 euro batzea lortu du Soraluzeko Misio Taldeak. Jasotako dirua aipatu herrialdeko ur-bideratze lanak egin eta azpiegiturak berreraikitze erabiliko dute. Azaldu dutenez Haitin, asko dira oraindik ur edangarririk ez duten eskola edota erietxeak, eta kanalizazioak egin ahal izateko 19.999 euro behar dituzte. Diru kopuru hori lortze bidean aurrerantzean burutuko dituzten ekimenetan parte hartze-ko deia luzatu nahi diete herritarrei.

## Hileko puntua



### Martxan da Erregetxeko TAO sistema

Erdialdearen irisgarritasuna hobetu asmoz, Erregetxean txandakako hamazortzi aparkaleku ezarri ditu udalak. Astegunetan goizeko 9:00etatik arratsaldeko 21:00etara eta zapatuetan goizeko 9:30etatik arratsaldeko 13:30era egongo da martxan. Domeketan libre izango da aparkatzea. Erabiltzaileek 90 minutuko denbora muga izango dute eta udaltzainek zainduko dute beronen erabilera.

## FotoNotizia



### Irureko urak bideratzeko eskaera Aldundiari

Joan zen asteko euri-jasak arazoak sortu zituen berriz ere Irure inguruan. Autopista gaineko ubideko urak gainezka egin eta errepide nagusiraino heldu ziren. Udalak behin-behinean urak bideratzeko lanak burutu bazituen ere, Aldundiari eta Bidegiri iaz hitzartutako lanak osotasunean gauza daitezen eskatuko diela adierazi du. Larraitz Ugarte foru diputatuari falta diren lanak noiz egingo diren galdetu diote EAJK eta PSE-EEK.

## Motzean

### Gaztetxeaz hausnartzen

Herriko gune autogestionatuaren iragana izan zuten gogoan eta etorkizuneari egin beharreko bideaz hausnartu zuten, aurreko asteburuan, Goñiko topaketan parte hartu zuten hogeit lagunek. Bertan landutakoa herritarrekin partekatze gogoia erakutsi dute eta datozen egunetan burutuko diren eztabaidetan parte hartzera animatu nahi dituzte.





**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,  
eta berogailuak  
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696



**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**

## Soraluzetarrak Gureak-ekoen bazkarian

Urtarrilean omendu zituzten bazkari bitartez Gureak-eko langile eta begiraleak. 140 lagun batu zituen aurtengo ekitaldiak, tartean izan ziren Jose Ramon Rascon, Patricia Ramos eta Alberto Arana soraluzetarrak.



**“Txotx erraldoira” joateko autobusa**  
Korrika 18ren harira, euskalduntzen ari diren ikasleak omenduko ditu bihar AEKk Usurbilen burutuko den “Txotx erraldoian”. Egun osoko jaialdia antolatu dute eta kale animazioa, trikitilariak, txarangak eta bertsolariak ez dira faltako. Sarrerak AEK euskaltegian daude salgai, 10 eurotan. Autobusa Zubi Nagusitik abiatuko da, goizeko 11:30ean.

## Odola emateko aukera gaur Itxaropenan

Urteko lehen odol-emate saioa egingo da gaur 18:30etik aurrera Itxaropena Jubilatuen Elkartearen Arduradunek odol emate gazteak falta direla ohartarazi dute eta bereziki, 18 eta 30 urte bitarteko herritarrak animatu nahi dituzte saiootan parte hartzeraz. Gaurkoaz gain, sei odol-emate saio burutuko dira 2013an: martxoaren 22an, maiatzaren 24an, uztailaren 19an, irailaren 20an eta azaroaren 22an.

## Jubilatueta batzarra eta luntxa

Otsailaren 12an urteko ohiko batzarra burutuko dute Itxaropena jubilatuen etxeko bazkideek. Lehendabiziko deialdia 16:30erako zehaztu dute, bigarrena 17:00etarako. Aratosteak direla aprobetxatuta, luntxa eta dantzaldia ere antolatu dituzte.

# Aurrekontu egitasmoa herritarren aurrean

Udal gobernua eragileen ordezkarien eta herritarren aurrean aurkeztu zituen udalbatzarrean proposatuko dituen aurrekontuak eta egitasmoak. Aurrekontu proposamena 3.776.211 eurokoa da, iazkoa baino 76.644 euro gehiago. Azkenengo bi urteetan “udal gobernua garatutako politikari esker”, udalaren zorra (2.871.481 euro) %29,6an murriztea lortu dela adierazi zuen alkateak eta ondorioz udalaren egoera ekonomikoa “geroz eta hobea” dela. Egitasmoen atalean, Alkarrekin Soraluze hausnarketa estrategikoaren garrantzia nabarmendu zuen; “udaleko ordezkari guztiak, herritarrak eta eragile sozialak, datozen urteetan jorratu beharreko bideak zeintzuk diren elkarrekin zehazteko aukera emango duelako”.

Udal gintzako ohiko arloei dagokienez, zinegotzi bakoitzak bere arloan garatuko dituen ildo nagusiak aurkeztu zituen; 5. edukiontzia ezarri eta helburu zehatzak finkatzea, baliabide gutxien dutenei herriko

dendetan kontsumitzeko bonolaguntzak banatzea, merkatu plazako kultur erabilerrako egoitza zabaltzea, herriguneko asfalto konpontzea, hirugarren sektorea biziberritzeko plan estrategikoa, gaztetxokoa zabaltzea eta kiroldegi gainerako beiratearen irekiera aipatu zituzten besteak beste. Bestalde, eragileendako banatzen diren dirulaguntza guztiak bere horretan mantenduko direla ziurtatu zuen Arluziagak.



Zinean burutu zen udal aurrekontuen aurkezpena.

# Elkarretaratzea hileroko Plaza Zaharrean

“Presoen giza-eskubideen alde agertzeko ekimen berria” aurkeztu du Soraluzeko Herrirak. Hileroko azken barixakuetan elkarretaratzeak antolatuko ditu, eta bertara, “presoen eskubideen aldeko aldarriarekin bat egiten duen herritarren gehiengoa urreratzea” lortu nahi du. Hori dela eta, hemendik aurrera elkarretaratzeak Plaza Zaharrean eta hileroko behingo maiztasunarekin antolatuko dituzte. Urtarrilaren 25ean arratsaldeko 20:00etan egingo da lehenengoa, eta bertan parte hartzeko deia zabalduta dute herritarren. Bestalde, hilabeteotan burututako ekimenetan, eta

batez ere Bilboko manifestazioan herritarrengandik jasotako babes “izugarria” eskertu dute.



Bilboko manifestaziora lau autobus joan ziren.



CRISTIAN CORTES  
PEDRO MOREIRA

## soralur

Igeltseritza eta pintura lanak

Tel. 616864464 / 667362957  
soralurc.b@hotmail.com



# ARRANO

tabernia

etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

etxera

# Herriaren memoria argazkitan

“Soraluze iruditan” erakusketa, otsailaren 9 arte.



Estaziño parka (1986)



“Soraluze iruditan” erakusketa XX. mende hasieratik aurrerako hirurehun bat argazki daude ikusgai. Sei hilabete zehar Ekaitz Uzin argazkilariak udalaren eskariz digitalizatutako udal-artxiboko argazkiak dira. Gehienek autorea ezezaguna da baina badira Biribiltxo eta Lakuestaren argazki asko. Uzinek 2.000 argazki zahar inguru digitalizatu ditu hilabeteotan: udal-artxibokoak eta Kontrargik lagatakoak (Biribiltxo eta Lakuestaren bildumetakoak). Argazkiotik garai bizi moduko hainbat arlotako irudiak islatzen dira; kirola, baserria, fabrika, elijioa, bilakaera urbanistikoa... Erakusketa astelehenean za-

baldu zen eta otsailaren 9ra arte izango da zabalik. Horrekin batera, interneten zabaldu duten blogean ere ikusgai daude zenbait argazki: [www.soraluzeiruditan.wordpress.com](http://www.soraluzeiruditan.wordpress.com)

## Bilketa eta zabalpenaren jarraipena

Datozen hilabeteetan ere jarraipena izango du argazki zaharren bitartez herriaren historia jaso eta zabaltzeko lanak. Hain zuzen, argazkiak digitalizatzen jarraitzea, eta urtero argazki zaharrekin osatutako autore-liburu bat eta egutegia kaleratzea adostu berri dute udalak eta Kontrargik.



Aizkolariak San Andresen. Laxare, Tankerak Izarre (1953 - 05 - 17)





Soroa goldatzen (Arritxa?)



"Erregetxe" eraikina (1969)

Ezoziko Plazan garo meta atzean dutela.



Elizaren ikuspegia Zeleta ingurutik (1950 ingurua)



a eta

Erregetxean errotaziozko 15 aparkaleku egokituko ditu udalak. Erdigunera autoz heltzeko erraztasunak emanaz herritarrek erosketak herrian egitea bultzatu nahi dute neurri honekin. Bizikale dendarien elkarteak eskatuta hartu du neurria udalak.

## Erregetxean errotaziozko aparkalekuak jartzearen inguruan zein iritzia daukazu?



Mila Moro

Ona. Erdialdean ez dago aparkatzeko lekurik eta jendea kanpora joaten da erosketak egitera. Ea jendeak behar den moduan erabiltzen duen.



Aitor Agirre

Ondo iruditzen zait. Erosketak egitea errazteaz gain bankura edo anbulatoriora joateko edo bestelako zeregin batzuek egitea erraztuko duela uste dut.



Aitor Fernandez

Idea polita pentsatzen zait. Txurruken eta Ezozibideko jendearendako, igual bentaja izango da. Udaltzainendako dezenteko lana izango da baina probatzea ondo dago.



Belen Oruesagasti

Nik uste dut lagungarria izango dela. Erdialdean ez da izaten aparkatzeko lekurik eta horrek kanpora joatera bultzatzen du jendea. Hala eta be, dendarien alaitasuna moduko erreklamorik ez dago.

### Lehiaketa

Zein da?



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.

#### Aurreko aleko erantzuna

Mikel Calvo, kiroldegiko kirol teknikaria

#### Irabazlea



Adur Odriozola

**Saria:**  
Mihiluze mahai jokoa

**PASCUAL CHURRUGA, s.a.**  
Hotzian eta beruan jotako tornilluak  
Errekalde 21  
20590 SORALUZE  
T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

Javier Alonso Zelaleta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434  
**HORTZ KLINIKA**  
Errabal 1 - Barrenekoa 2  
T. 943 75 16 13

## Kirol emaitzak

### PELOTA

Jaunarena – Pascual	15
Ezkurdia – Laskurain	19
<b>Andreu – Aldape</b>	<b>22</b>
Etxebarria – Ajuria	2
<b>Santamaria – Kortaberria</b>	<b>22</b>
Lasarteko bikotea	2
<b>Irureta</b>	<b>22</b>
Legutianoko ordezkaria	2

### FUTBOLA

<b>Sora (Erreg. Pref.)</b> – Elgoibar	3-2
Saillapenean 7.na, 1.etik 12 puntura	
<b>Arizmendi – Sora (Erreg.)</b>	2-1
Saillapenean 3.na, 1.etik 3 puntura	
Jubenilek deskantsua	
Saillapenean 4.na, 1.etik 5 puntura	
<b>Sora (Kad. Mut.)</b> – Ikasberri	6-3
Saillapenean 3.na, 1.etik 3 puntura	
Beasain – <b>Sora (Kad. Nesk.)</b>	9-0
Saillapenean 8.na, 1.etik 36 puntura	
<b>Sora (Inf. Mut.)</b> – Santa Teresa	6-3
Saillapenean 4.na, 1.etik 9 puntura	
<b>Sora (Inf. Nesk.)</b> – Zumaiako	1-0
Saillapenean 5.na, 1.etik 17 puntura	

## Agenda

### PELOTA

**Gaur, 20:30ean Hendaian**  
Retegi Bi – Laskurain  
Aritz Lasa – Pascual

**Gaur, 20:00etan Arane kiroldegian**  
**Urkiri – Gallastegi**  
Atauneko ordezkariak  
**Tajuelo – Fernandez**  
Lazkaoko bikotea

**Zapatua 26, 11:00etan Uhartan (Nafarroa)**  
**Epelde**  
Uharteko ordezkaria

**Domeka 27, 11:30ean Azkoitian**  
**Santamaria – Kortaberria**  
Azkoitiko ordezkariak

### FUTBOLA

**Zapatua 26, 16:00etan Iraetan**  
Zestoa – **Sora (Erreg. Pref.)**

**Zapatua 26, 16:30ean Ezozin**  
**Sora (Erreg.)** – Zestoa

**Domeka 27, 16:00etan Ezozin**  
**Sora (Jub.)** – Zestoa

**Zapatua 26, 11:00etan Iraetan**  
Zestoa – **Sora (Kad. Mut.)**

**Domeka 27, 10:30ean Almen**  
Arizmendi K.E. – **Sora (Kad. Nesk.)**

**Domeka 27, 9:30ean Ibarra**  
Arimendi – **Sora (Inf. Mut.)**

**Zapatua 26, 10:00etan San Migelen**  
Mutriku – **Sora (Inf. Nesk.)**

## Otsailaren 24an jokatu da Soraluzeko XVI. Txirrindulari Saria

Soraluzeko Kirol Elkarteak 23 urtetik beherako txirrindulari gazteentzat antolatzen duen lasterketa otsailaren 24an jokatu da. Parte hartzaileak goizeko 9:45ean Estaziño kaletik abiatuko dira eta Eskoriatza, Mendaro, Angiozar, Asensio Goia eta Bergara igaro ostean, San Andres auzoan bukatuko dute froga, 12:30ak inguruan.

Xabier Gallastegi txirrindulari soraluzetarrak herriko sari nagusian lehiatuko duela aurreratu du. Debabarrena taldea ordezkatzeko arituko da eta froga borrokatua izango dela badakien arren, saillapen ona eskuratzea du

helburu. Handik astebetera, Zumaia Sarian lehiatuko du.



Xabier Gallastegi, entrenamendu lanak egiten.

## Soraluzeko Pilota Kluba lehena da Euskal Herriko Ligan

Txandaka, Andreuk, Atxotegik edo Aldapek ordezkatzeko dute binakakoan Soraluzeko Pilota Kluba. Ezin hobeto hasi dute apirilera bitartean jokatu den Euskal Herriko Liga; bi partida jokatu dituzte eta bietan garai- suertatu dira. Azkena norgehiagoka joan den barixakuan izan zuten eta ho-

netan, Andreuk eta Aldapek 22-2 irabazi zuten Etxebarria eta Ajuria bikotearen kontra. Amezketako bikotearekin berdinduta, saillapeneko lehen postua eskuratu dute eta hain zuzen, asteburu honetan, saillapeneko lidertza jarriko dute jokoan, amezketarren aurkako norgehiagokan.

## Umores onak nagusi San Silbestre lasterketan

Eguraldi txarrak ez zituen kikildu eta lohiko zitari hutsik egin gabe hogei bat lagunek lasterka agurtu zuten urtea abenduaren 31n. Mozorroak jantzita korrikaldi alai eta umoretsua eskaini zuten lagun arteko giroan. Herriko erdigunean bueltak ematen aritu ziren, lau kilometroko ibilbidea osatu arte.



# GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15    T. 943 75 18 34

## BODEGA ESTACION

(Negozioa alokagai)

Oilaskoak, pizzak, pafaja  
torfilak, kazuelaxoak...

Ordujedia: 8:30-14:30 / 17:30-22:00 · 943 75 18 53

## Euskal kultura kalera aterako da aratusteetako barixakuan

Aurten haur eta lehen hezkuntzako neska-mutikoek Euskal Aratosteak ospatuko dituzte eta kalera ere aterako dira kalejiran aratusteetako



Egitasmoan parte hartu duten eragileetako ordezkariak.

barixakuan. Hain zuzen, "hezkuntza kalera ateratzea" eta "gure historia eta kulturari erreparatzea" dira helburu nagusienetakoak. Hezkuntza, aisialdia, kultura eta euskalgintzako herriko eragileek parte hartu dute egitasmoa osatzen eta aipatu dutenez otsailaren 8an kalejira ikusgarri eta koloretsua, "Irria eta festa" ekitaldia, txokolate jana eta dantzaldia ez dira faltako.

### Egitarauan aldaketa

Euskal Aratosten festak martitzen gabean burutu ohi zen playback lehiaketa eta dantzaldia ordezkatu ditu. Gainontzean, ekitaldi guztiak bere horretan mantenduko dituzte: trikitilari eta buruhandien kalejira, salda eta txorizo dastaketa, dantzaldiak, mozorroen kalejirak, haurrentzat jolasak, playback lehiaketak eta beste antolatu dituzte herritarren gozagarri. Egitarau osoa:



## Mahai-ingurua eta afari begetarianoak gaur gaztetxean

Soraluzeko gazteriak indarberriturik Sekin dio urteko plangintza antolatzeari. Gaur esaterako, "Feminismoak eta instituzioak: harremanak eta gatazka" solasaldia burutuko dute, Kattalin Minerrek dinamizatuta. Ondoren, otordu begetarianoak eskainiko dituzte.

Otsailaren 1ean, B.C. Bombs eta Screammers Sinners musika taldeak gaztetxeko taulagainean arituko dira eta oinak arinarin eta fandangoaren erritmora mugitzen ikasteko euskal dantza ikastaroa ere antolatu dute otsailerako.

## Entsaio-gela konpartitzeko deia

Ezozibideko entsaio-geletako bat konpartitu nahi dutenezat bilera

deitu dute lokaleko erabiltzaileek: otsailak 2, arratsaldeko 16:00etan Gilan.



## Kultur agenda

### Otsailaren 1etik 29ra

KZgunea. INTERNET IKASTAROAK Oinarrizko interneta, sare sozialak, software librea...

Orduategia: 09:00-13:00

Ant: Soraluzeko KZgunea

### Otsailaren 9ra arte

ARGAZKI ZAHARREN ERAKUSKETA "Soraluze iruditan. 1913-1986"

Kiroldegiko erakusketaren aretoan

Ant: Udaleko Kultura Batzordea

### Otsailak 2, zapatua

SANTA ESKIAN BASERRIZ BASERRI

M. Amuriza eta U. Gaztelumendirekin

8:30ean, Iratxo Goxodendatik

Ant: Herriko bertsozaleak

### Otsailak 3, domeka

SAN BLAS OPILEN BEDEINKAPENA

12:15ean, Parrokian

Ant: Soraluzeko Parrokia Taldea

SAN BLAS OPILEN VI. LEHIAKETA

13:00etan, Plaza Barrixan

Izen-ematea: Aurrez udaletxean edo egunean bertan

Ant: Udaleko Kultura Batzordea

### Otsailak 4, astelehena

SAN BLAS JAIA JUBILATUETAN

San Blas opila eta kafesnea

bazkideentzat

17:00etan Itxaropena elkartean

Ant: Itxaropena elkarte

SANTA AGEDA BEZPERAKO KOPLAK

Musika Eskola eta Bertso Eskolako

ikasleak. 18:30ean, Santa Ana kaletik

Ant: Soraluzeko Musika Eskola eta Bertso Eskola

SANTA AGEDA BEZPERAKO KOPLAK

Ezoziko Ama abesbatza eta herriko

txistulariak. 19:30etan, Zubi Nagusitik

Ant: Ezoziko Ama Abesbatza

### Otsailak 10, domeka

MIINGAINLUZE LEHIAKETA

17:00etan, Zinean

Ant: Atxolin IGE

## Zorion agurrak



**Xabat Deza**  
Abenduan 27xan 9urte  
Muxu haundi bat Argateko  
familixian partez!



**Lander Rz de Luzuriaga**  
Abenduan 13xan 8 urte!  
Zorionak maittia! Muxuak aitaxo,  
amatxo eta Enekon partez.



**Amaia Hernandez**  
Urtarrilan 3an 8 urte!  
Zorionak politta!  
Muxu asko etxekuen partetik!



**Alain Lopez**  
Urtarrilan 20xan 7 urte!  
Zorionak gurasoen partez.  
Asko maitte zaittugu!



**Hodei Valdivieso**  
Urtarrilan 9xan 9 urte!  
Zorionak maitte zaittugun  
guztian partez.



**Aupa Peio!**  
Gure etxeko haundixenak  
7 urte egin dittu!! Mila zorion,  
muxu eta besarkada!!



**Zorionak Joanes**  
Urtarrilean 5 hilabete egin  
dittuzu!! Peio, Koldo eta  
familia osuan partez!



**Ione Garai**  
Urtarrilan 20xan 25 urte!  
Zorionak polittori, etxekuen  
partez!



**Imanol Agirre**  
Urtarrilan 20xan 9 urte!  
Mila muxu eta zorion,  
Maitte zaittugunon partez!



**Nerea Atxotegi**  
Urtarrilan 18xan 14 urte  
Zorionak futbolari! Besarkada  
haundi bat etxekuen partez.



**Lorea Azkona**  
Urtarrilan 29xan 8 urte! Muxu  
haundi bat etxekuen partez,  
bereziki Anderren partez.



**Domentx Peris**  
Urtarrilan 16xan 9 urte! Muxu  
haundi bat etxekuen eta Bereziki,  
Lorea, Ander eta Laian partez



**Zorionak Unai!**  
Daguaneko 3 urtetxo!  
Muxu haundi-haundi bat,  
danon partez!



**Jose Antonio Vaquero**  
Urtarrilan 28xan! Zorionak  
aitaxo, Oier eta Gurutzen  
partez!



**Nikanor Iñurrieta**  
Urtarrilan 11n 93 urte!  
Zorionak aitxixa!  
93 muxu ta besarkada goxo  
familixakuon partez!




**Jokin Maiora**  
Otsailan 7xan 4 urte.  
Zorionak eta muxu potolo bat  
familixa guztian partez!

## Jaiotakoak eta hildakoak



**Alaine Arevalo Viciosa**  
**Chaia Ahmed Mohamed**  
**Amets Esnaola Torrientes**  
**Yasira Cortes Cortes**  
**Ariane Muriel Cadenas**  
**Enara Eusebio Oliveira**  
**Jihan Boutsaid**



**Victor Treviño Mesa**  
**Paulino Goenaga Benito**



**IÑAKI RUIZ ARANA**

MENDIAN ZENDU ZEN  
2012KO OTSAILAREN 11N  
I. URTEURRENA

*Negu hotzak zuritu ditu mendi puntak,  
eta gurekin,  
zuanako maitasunaren epela.*

Etxekoak



Iturria: Udaleko argazki zaharren artxiboa

## Zezenak Plaza Zaharrean

Erretratu hau 40. hamarkada bukaeran jasota dago (1948. Urte inguruan), San Roke Txiki Egunean. Sasoi haretan abutzuko ospakizunek garrantzia handia zuten herrian eta egitarauan zezenak ez ziren inoiz falta izaten. Plaza Zaharrak zezen plaza itxura hartzen zuen eta sokarik gabe,

libreki askatzen zituzten zezenak. Argazkian ikus daitekeen moduan, asko ziren toreatzaile lanak betetzera animatzen zirenak, tartean Luis Mari Bolunburu † eta Jose Luis Elorrio †. Esan daiteke, ordutik, zezenak tradizio handia duela gurean.



**PAULINO GOENAGA**

URTARRILAREN 11N HIL ZEN  
82 URTE ZITUELA

*Aitta, ohoratzen zaittugu eta eskerrak emoten  
zugandik jaso dogun guztiagaittik.  
Bihotz bihotzez, maittasunezko besarkadak zure argizko bidairako.  
Laster arte, asko maitte zaittugu*

*Eskerri asko*

Une honetan gurekin izandakoei, elizkizunetara etorritakoei eta samin agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko familiakoen izenean



**MERCEDES OLABARRIA ZABALO**  
(ENRIQUE CHURRUCA MAYORAREN ALARGUNA)

2012KO URTARRILAREN 20AN  
I. URTEURRENA

*Urtebete pasa da gure ondotik joan zinela,  
zure oroitzapenak ez dira errez ahazten horrela,  
goian edo behean berdin da baina bai gure bihotzean zaudela.*

*Eskerri asko*

Asko maitte zaittugu amama

# Elizpe

## Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK  
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA  
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (hauren arretarako hortz programa)

Elizburu 3 behea, Soraluze • Tel. 943 75 25 67

Belarrak  
Loradenda  
eta  
belardenda

T. 943 75 30 11



## Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tifonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

Javier Alberdi



Baimendutako  
harategia  
Euskal Okela  
Carniceria  
autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze



*Diseinua eta Formena*

Poligono Amillage, n° 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



**Lakuesta**  
Optika

Ikusmen arazoan frogak  
eta argibideak  
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. behea  
20590 Soraluze  
T. 943 75 30 59



Soraluzeko  
Kooperatiba  
Elkartea

*1910etik*

943 75 13 45



2013

# SORATOSTIAK

## Otsailak 8, barixakua "EUSKAL ARATOSTIAK"

16.00etan, Kalejira koloretsua: eskolafik plazara

16.30ean, "Euskal Aratostiak" irria eta festa, ekitaldia Plaza Zaharrean.

17.00etan, Txokolatada gurasoen eskufik Plaza Zaharrean.

Ostean, Afundu gorputza: DJ eta dantza Kukumixorekin Plaza Zaharrean.

## Otsailak 9, zapaña

12.30ean, Trikitilari eta buruhandiak kalez kale.

12.30ean, Salda eta txorixoa Plaza Zaharrean.

17.00etan, Haurrentzako jolasak Plaza Zaharrean.

19.30ean, Dantza Pojeoa Plaza Zaharrefik hasita.

19.00etan eta 23.00etan Dantzaldia. Plaza Zaharrean.

## Otsailak 12, martitzena

18.00etan, Haur eta gaztekoen play-back lehiaketa frontoian.

19.00etan, Musika saioa. Plaza Zaharrean.

### Antolatzaileak:

Atxolin Guraso Elkartea, Urrats Dantza Taldea, Plaentzia Herri Ikastetxea, Kukumixoko Aisialdi Taldea, Parrandan Ludoteka, Soraluzeko Institutuko gazteak, Pil Pilean Euskaldunon Elkartea, Kontrargi Argazki Taldea, Ikasbidaia 2013, Soraluzeko Musika Eskola eta Soraluzeko Udala.